

6. ERANSKINA

Baimena

GOGORATU: zuen ikastetxeko ikasleak agertzen diren irudiak, bideoak edo bestelako materialak argitaratu eta partekatzeko, ezinbestekoa da gurasoen/tutoreen edo legezko ordezkarien **baimen egokiak** izatea, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak irudiak bere sare sozialen bidez eta kanpainari lotutako erakundeen kanalen bidez zabalduko direla jakin ahala.

Zuen ahotsak Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren sare sozialetako kontuetatik (Facebook, Instagram, Twitter, Flickr, webgunea edo hedabideak) zabaldu eta altxatze aldera, helburu nagusia dela SAME zabaltzea eta 4. GJH betetzearen aldeko borroka egitea, honako hauetara animatzen zaituztegu:

Materialak eta argazkiak partekatzera zuen ikastetxeen eta hezkuntza-guneen webgunean eta/edo sare sozialetan, Espainiako CME etiketatuz (behean, CMEn kontuen zerrenda). Horrela, Espainiako CMEn zabalduko handiagoa eman ahal izango digu, eta, horrela, herritar gehiagorengana iritsi.

Espainiako CMekin ere partekatu dezakezue materiala **comunicacion@cme-espana.org** helbidera bidaliz. Postan oinarritzko informazioa sartzeko eskatzen dizuegu:

- Ikastetxearen/hezkuntza-gunearen izena:
- Parte-hartzaileak (Ikasmaila/Ikastaldea/Ikaskela):
- Data eta lekua (herria, udalerrria, autonomia erkidegoa):

Garrantzitsua, mesedez, sartu honako paragrafo hau:

“[ENTITATEA]-k, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren baitan egindako jardueretan parte hartzen duenez, irudiak tratatzeko baimena ematen du, eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina (CME) osatzen duten erakundeei ematen dizkie irudiak ustiatzeko eskubideak, posta honen bidez partekatzeko. Tratamenduaren helburua CME ezagutaraztea edo sustatzea da, bai eta parte-hartzaileen irudia, ahotsa eta materialak zabaltzea ere, CME osatzen duten erakundeen edozein komunikabide edo komunikazio-kanalen bidez. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo bestelako eskubideak erabiltze aldera, jo dataprotection@educos.org helbide elektronikora, eta pribatutasun-politika kontsultatzeko, jo hona: <https://cme-espana.org/politica-de-privacidad/>. [ENTITATEA]-k bermatzen du badituela haurren eta nerabeen guraso/tutoreek eman beharreko baimenak haien datu pertsonalak eta irudiak tratatzeko eta CMEko kide diren erakundeei lagatzeko”.

Irakurri dut eta onartzen dut. Sinadura eta zigilua: